



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Nobela bat idaztea edonoren eskura dago”

Iban Zaldúa | Nobelagilea

Egunotan kaleratu du *Euskaldun guztion aberria*, bere lehen euskarazko eleberria, gure ipuingintzaren “apologeta” nagusia izan arren.

FERMIN ETXEGOIEN

Argakia: Alex Larretxi

Borgesek ez bezala, ezin izan duzu ipuingile “soila” izatearen presioa jasan!

Aspaldi etsi nuen: *Euskaldun guztion aberria* ez da nire lehenengo nobela, aurretik *Si Sabino viviría* argitaratu bainuen. Beraz, bekatu beniala da honezkero, ez kapitala.

Pozik al daude papá eta mamá?

Egongo ez dira ba! Eta txantxa gutxiago gero, susmatzen dut Euskobarometroari aitortzen diotenak baino gehiago direla *mamá* eta *papá* erabiltzen duten euskal hiritarrak... Gure etxean beti *mamá* eta *papá* izan da, baina ez *mami* ez *mamutxi* ez *mamacita*...

Nobelagile bilakatu zarenez gero, aitortu egingo dizut nire betiko ustea: zailagoa da eleberri txarra idaztea edozein ipuin baino!

Luzeagoa bai, zailagoa ez dakit. Argi daukadana da nobela baino zailagoa izan daitekeela ipuin liburu oso bat idaztea. Eta, azken batean, nobela bat idaztea edonoren eskura dago, frogatu berri dudan bezala; ipuin liburu on bat osatzea, ordea, ez.

Volgako Batelariez pentsatzen dudanean, pottokiak bezala imajinatzen zaituztet: pottoki marmartia, pottoki lumaduna, pottoki bekaizia...

Hara, ez dut nik esango bakoitza zein pottoki den... Rol banaketarik ez dago gure artean behintzat. Uste dut, hala ere, pottokiak ez zirela gu beste libertitzen, askoz ganberroagoak garela gu.

Zure Euskadi Sarietatik biziki poztu nintzen, baina onartuko didazu ezker abertzaleko idazleei sekula ez dietela ematen.

Eta nork esan dizu ni ez naizenik? Egun batzuetan, non eta norekin nagoen, oso abertzalea eta oso ezkertiarra izan naiteke.

Bide batez: Gasteizen bititza zure pose bohemioaren zein parte da?

Horrek esan nahi du norbaitek “bohemio” ikusten nauela? Oso eskertuta nago, benetan. Ikusi beharko ninduke egunero gure alabak eskolara eramaten, bazkaria prestatzen, haienztat Alaitz eta Mainerren CDak pirateatzen... Baina irudiari dagokionez, ados, ziur aski ez naiz inoiz izan donostiar dotoreziaren ordezkari bikainena.

Ez daukazu batere futbolari itxurarik. Hala eta guzti, Euskal Herria ala Euskadi nahiago?

Nik, horretan, Rikardo Arregirekin eta, oro har, post-independentziaren tesiekin bat egiten dut: Basque Country, edo, atxagatar jarriz gero, Basque City, inolako zalantzarik gabe. Nola izango da futbol taldearena ingelesez jarriko ez dugun gure sor-marka bakarra!

Zenbat jende esaten dizu irakurtzen dituela zure *El País*-eko euskarazko artikuluak?

Gutxi gora-behera *Nabarra* aldizkari “jatorragoan” argitaratzen dizkidanak irakurri dituztela esaten didatenen antzeko kopurua: batek edo batek ere ez.

Noiz eta nork –zuk zeuk, menturaz– idatziko du Euskal Eleberri Handia?

Nobela hori idatzita dago jada, kontua da desagerarazi zutela, eta biltegi erraldoi batean dagoela, zazpi giltzaz hertsia, Aliantzaren Arkaren ondian. Baina oraindik ez dut deskubritu nor izan zen ebaslea: Olivares Konde-Dukea, Agosti Xaho, CIA edo Petronor. Erantzuna topatzen dudanean esango dizut... Dena dela, eta ondo pentsatuta, nork behar du Euskal Eleberri Handirik? ■